



oinak buruan

Eskolartekoa

Zer da?

Haur eta gazteak jendaurrean kantatzeko, bertsozaletzeko, saretzeko eta arduratan zailtzeko antolatzen da.

Bertsoaren bidez ikastoletan euskara eta euskal kultura sustatzea ere bada ekimen honen sena.

**Oinarri
nagusiak**

1

Lehia bigarren mailako kontua da

Lehiarik gabeko saioetan kantatzeko aukera dute 14 urte arteko gazteek.

Horretarako, hainbat ekimen atontzen dira: bertso merenduak, saio didaktikoak edo Bertso Eskolen Egunetan bertso eskolek prestatutako emanaldiei eskainitako tarteak, kasu.

2

Bat-batekoan, txapelketa

Bertsolariaren zereginetara mugatu gabe, gazteei aukera ematen zaie nahi duten rolean parte har dezaten: bertsolari, gai-jartzaile, antolatzaile...

Hurbilak eta erakargarriak izango diren txapelketa formatuak bilatzea da helburua.

.

3

Bertso Eskolen Eguneekin lotuz

Lurraldeetako bat-bateko txapelketako finalak Bertso Eskolen Eguneekin lotzen dira. Hala, bat-bateko finaleko saioa ikusteko aukera ez ezik, elkarrekin bazkaldu, jolastu zein harremanetan hasteko ere parada dute.

**Eragina,
zertan?**

**Beraien
neurriko
saioak
eskaintzea**

**Askotariko
roletan
aritzeko bide
ematea**

**Adinkideekin
harremanetan
jartzea**

**Bertsolariekin
eta bertso
eskolekin
zuzeneko
erlazioa izatea**

**Bertsotan
egiteko
gogoa
piztea**

**Taldelana eta
bakarkakoa
uztartzea**

**Ingurukoak
bertsoetara
erakartzea
eta zaletzea**

**Herriko
bertso eskola
ezagutzera
ematea**

**Herrian bertso
ekimenak
sustatzeari**

*...eta askoz
gehiago!*

